



GURE UDALERRIA
GIPUZKOAKO
HAUR ETA **GAZTEEN**
SUSTAPEN-SAREAN



TEKNIKARIENTZAKO GIDOIA



GURE UDALERRIA GIPUZKOAKO HAUR ETA GAZTEEN SUSTAPEN-SAREAN (GAZTEMATIKA).

Atal honetan Gaztematika zer den eta sareko kide izateak zer suposatzen duen azalduko dugu, hitz bitan.

Gure lanean ez gaude bakarrik. Gipuzkoako Foru Aldundian eta udaletan haur eta gazteen sustapen-arloan lanean aritzen garenok sare bat osatzen dugu: **GAZTEMATIKA**. Guztira, GFA eta 76 udal gara.

Hainbat urtez martxan egon eta hobetu ondoren, sareak Gipuzkoako haur eta gazte ia guztiak hartzen ditu, eta guztion artean 80 bat zerbitzu egonkor ditugu martxan. Bertan parte hartzeko, udalek, lankidetzak-hitzarmenak sinatu ditugu Aldundiarekin. Finean, sarea bitarteko bat da haurren eta gazteen sustapenean Aldundia udalekin lankidetzan jarduteko eta hauek koordinazioa eta laguntza teknikoa jasotzeko.

Araudiari dagokionez, ibilbide luzeko sare honi onarpen eta babes juridikoa Foru Dekretu batek eman zizkion: [Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarea sortzeari buruzkoak](#). Foru-arau honek zehazten ditu Gaztematikaren helburuak, egitura, organoak, parte-hartzaileak, ardura-banaketak, jarduerak eta prestazioak.

■ Onurak orokorrean

Gaztematikak prozesu eta aktibo baliotsuak sortu ditu eta, horren ondorioz, onura handiak ekarri dizkigu. Besteak beste, ondo definitu eta mugatutako erreferentziazko lan-esparru bat dugu, gure misioa edo xedea zein den eta hori lortzeko nola lan egin behar dugun adosten eta erabakitzen laguntzen diguna.

Gaztematika sareak eztabaidarako eta elkarrizketarako hainbat gune ditu, maila politikoan, teknikoan eta hezitzaileenean. Ikasturtean zehar hainbat bilera (foro) egiten ditugu maila bakoitzean, lurraldeko eragile guztiak bilduz. Denoi interesatzen zaizkigun gaiak taldean aztertzeak, elkarren berri izateak, esperientziak partekatzeak, gurean bide onetik goazen jakiten laguntzen digu.

Guztion arteko lan horri esker, norabide berean lan egiten dugu, helburuak adosten ditugu eta baliabide, gaitasun eta prozesuak bateratzen ditugu; eta horren ondorioz, probetxu handiagoa ateratzen zaie. Taldearen indarrak sendotasun handiagoa ematen dio gure lanari eta gure lan-esparruari, haur eta gazteen sustapen-politikak behar duten lekuan jartzeko ahaleginean.

■ Gaztematikatik jasotzen duguna:

- Bide-laguntza eta aholkularitza teknikoa plangintzarako, zerbitzuak hobetzeko, programak eta egitasmoak garatzeko, komunikaziorako...
- Lurralde mailan norabide berean lan egiteko plan komun bat, gure udal-plangintzara egokituko dena.
- Arloari buruzko ezagutza eta jakintza: praktika onak, dokumentazioa, albisteak, beste lekuetako esperientziak, sare barruan eta kanpoan, araudia...
- Dirulaguntzak, gure zerbitzuak, programak, jarduerak, etab. garatu ahal izateko.

- Prestakuntza. Sareko eragile guztiok (teknikari, hezitzaile, informatzaile...) jasotzen dugu. Urtean zehar hiruzpalau ikastaro izan ohi dira.
- Lurralde mailako programak, proiektu eta kanpainak gure udalerrian martxan jarri edo burutzeko. Adibidez, haurren ongizateari buruzko ZMZ inkesta, Erasmus+ programa, kultura-digitala...
- Gai zehatzei buruz taldean egindako hausnarketak: besteak beste, haurren kontrako sexu-indarkeria, esku-hartze birtuala...

■ **Gaztematikari ematen dioguna:**

- Gure udalerriko errealitatearen ikuspegia, ezagutza eta informazioa haur eta gazteen sustapen-arloan.
- Sarearen kudeaketa-organoetan parte hartzea, dagokion mailan (foroak, batzordeak...)
- Gaztematikako lan-taldeetan parte hartzea gai jakin baten inguruan elkarrekin lan egiteko.
- Udalean haur eta gazteen sustapen-alorrak dituen datuak ematea, sarearen hobekuntzarako.

■ **Gaztematika sarearen oinarrizko elementuak eta tresnak:**

Dekretua:

Aipatu dugu. Gure sarea juridikoki aitortu eta babesa emateaz gain, bere egitura, funtzioak eta ardurak zehazten ditu

Organoak:

Hauek ere aipatu ditugu. Sarearen oinarrizko zutabeak dira. Hiru foro ditugu: politikoa, teknikoa eta hezitzaileena; eta teknikarienak eta hezitzaileenak beren batzordeak dituzte.

Foroetan lurraldeko maila horretako eragile guztiek parte hartzen dugu, bai Aldundikoek bai eta udaletakoek ere. Eta batzordeetako parte-hartzea txandakakoa da, bi urteko iraupena du eta denok izan behar dugu kide noizbait.

Gaztesare:

Gaztematikaren datu-basea da. Sarearen beraren eta bertan parte hartzen dugun guztien (Aldundi eta udal) datuak biltzen ditu. Laneko prozesu asko errazten dizkigu eta, bide batez, haurren eta gazteen sustapen-alorraren errealitatea ezagutzeko, bilakaerak aztertze eta konparaketak egiteko balio digu, lurralde mailan eta herri bakoitzean.

Intraneta eta marka:

Gaztematikaren barruko komunikabide nagusia da: bertan gaude sareko teknikari eta hezitzaile guztiak. Bestalde, Gaztematika jada garatutako marka bat da, besteak beste, web-orri bat du eraskuleiho (<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gazteria/gaztematika>), eta honi lotuta informazio-buletin bat du: Gaztemira.

Definizio-dokumentuak:

Gaztematikak ibilbide luzea du. Sare gisa 2009an sortu zen eta, hasiera hartan, sarea bera eta bere zerbitzuak definituko zituen helburua, funtsak, printzipioak, etab. zehazteari ekin zitzaion. Oinarri teoriko hori guztia Gaztematikaren oinarrizko dokumentazioan jasota dago.

